



Esp. kodea.: 2016APAK0002

Gaia: 2016/02/12 UDAL PLENOAREN EZ OHIKO  
BILKURAREN AKTA

**2016/02/12KO UDALBATZAREN PLENOAREN EZ OHIKO BILKURAREN AKTA**

**Eguna:** 2016/02/12  
**Hasiera ordua:** 09:30  
**Amaiera ordua:** 09:35

**Bertaratuak:**

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte . alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA

Martin Arriolabengoa Unzueta  
Maria Cristina Etxenausia Irure  
Jose Ramon Uribe Uriarte  
Jon Ugarte Ugarte  
Roberto Lasaga Arriaran

EAJ/PNV UDAL TALDEA

Rafael Maria Bengoa Altuna

**Ez bertaratuak:**

EAJ/PNV UDAL TALDEA

Roman Berriozabal Azpitarte  
Andoni Erkiaga Agirre

**Idazkaria:**

Pedro M<sup>a</sup> Odriozola Zubizarreta

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ez ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkurara honetara Udalaren idazkari-kontuhartzailea, Pedro Maria Odriozola Zubizarreta, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



---

**Esp. kodea.:** 2016APAK0002

**Gaia:** 2016/02/12 UDAL PLENOAREN EZ OHIKO  
BILKURAREN AKTA

---

## **AURKIBIDEA**

1. ARAMAIOKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN FUNTSEZKO ALDAKETAK JASOTZEN DITUEN DOKUMENTUAREN HASIERAKO ONARPENA JENDE AURREAN EGON ONDOREN AURKEZTU DIREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA..... 3



## GAIAK

### 1. ARAMAIOKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN FUNTSEZKO ALDAKETAK JASOTZEN DITUEN DOKUMENTUAREN HASIERAKO ONARPENA JENDE AURREAN EGON ONDOREN AURKEZTU DIREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA.

2014ko urriaren 6ko Pleno Akordioaren bidez Udal Plenoak ondokoa erabaki zuen:

**LEHENA.**- *Hasiara baten onartzea 397/2012 Foru Aginduak, abuztuaren 3koak (Honen bidez, zati batean behin betiko onartu eta eten egiten da Aramaioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren espedienteak) ezarritako funtsezko aldaketak, Aramaioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren espedientearen parte direnak eta Aramaioko Hiri Antolamenduraren Plan Orokorraren Hasierako Onarpena (funtsezko aldaketak)+ izeneko dokumentuan jasotzen direnak.*

**BIGARRENA.**- *Plan Orokorra eta Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluaketaren Jendaurreko informazio aldia irekitzea, 45 eguneko iraupeneko ALHAOn, udaletxeko iragarki taulan eta lurraldeko zabalkunde edo zirkulazio handieneko egunkarian jarritako iragarkien bidez.*

*Epe horretan espedientearen erakusgai geratuko da edonork aztertu dezan egoki jotzen dituen alegazioak aurkeztu ditzan. Bakarrik aurkeztu ahal izango dira 397/2012 Foru Aginduak ezarritako funtsezko aldaketei buruzko alegazioak.*

**HIRUGARRENA.**- *Akordio hau arloko eskumenak dituzten administrazioei eta Oletako Administrazio Batzarrari jakinaraztea, eta eskatzea 45 eguneko epean eman ditzatela kontsulta eta txosten sektorialak, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.5 artikulua; urriaren 16ko 212/2012 Dekretuaren 42.2 artikulua arabera; eta arloko legeriaren arabera.+*

2015eko maiatzaren 14ko Pleno Akordioaren bidez Udal Plenoak ondokoa erabaki zuen:

**LEHENA.**- *2014ko urriaren 6ko Udal Plenoan hasiera batean onartutako Aramaioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren funtsezko aldaketen espedientearen (397/2012 Foru Aginduaren bidez ezarritako aldaketak jasotzen dituen) eta horren Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluaketaren euskarazko bertsioa ontzat ematea.*

**BIGARRENA.**- *2014ko urriaren 6ko Udal Plenoan hasiera batean onartutako Aramaioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren funtsezko aldaketen espedientearen (397/2012 Foru Aginduaren bidez ezarritako aldaketak jasotzen dituen) eta horren Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluaketaren jendaurreko epealdia 45 lanegun luzatzea ALHAOn, udaletxeko iragarki taulan eta lurraldeko zabalkunde edo zirkulazio handieneko egunkarian jarritako iragarkien bidez.%*

Aramaioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren funtsezko aldaketen espedientearen eta horren Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluaketaren hasierako onarpena gutxienez 45 (berrogeita bost) egunez jendaurrean jarri eta iragarri da Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, bi egunkarietan, udal webgunean eta ohiko udal-bideetan.

Jendaurreko epe barruan 18 alegazio aurkeztu dira, honako hauenak hain zuzen:

1. Iñaki Larrañaga Castillo.
2. Luis Vicinay de la Tajada.
3. Iñigo Bengoa Barrutia.
4. Gurutze Boveda Unzalu.
5. Valeriano Ibabe Abarrategui.
6. Arantza Ozaeta Elorza.
7. Promociones Ruiz de Infante.
8. Luis Vicinay de la Tajada.
9. Garbiñe Santacruz Sagarduy y Jose Ignacio Uriarte Aranburu.
10. M<sup>a</sup> Asunción Uribe Mendizabal.
11. Patxi Bengoa Areitioaurtena e Isabel Salutregui Aramendi.
12. Mikel Berasaluce Arrizabalaga.
13. Luis Iñarra Leibar.
14. Julian Abad Solera.
15. Jose Ramon Uribe Uriarte.
16. Amaia Axpe Axpe.
17. Juanita Loiti Gardoki.
18. Anton Axpe Elejalde.



Esp. kodea.: 2016APAK0002

Gaia: 2016/02/12 UDAL PLENOAREN EZ OHIKO  
BILKURAREN AKTA

Plan Orokorra idatzi duten teknikariek eta arkitekto aholkulariak hauek erantzun dituzte.

Horren arabera, alegazioak banan-banan erantzungo dira, Plan Orokorreko erredakzio-taldeak eta arkitekto aholkulariak eginiko txostenetan oinarrituz.

2016ko urtarrilaren 28ko Pleno akordioaren bidez, 18 alegazioetatik 15 erredakzio taldeak eta arkitekto aholkulariak eginiko txostenetan jasotakoa edo arkitekto aholkulariak eginiko txostenean jasotakoa onartuaz erantzutea onetsi eta akordio mailara jaso ziren eta 3 alegazio ez ziren onetsi, legezko gehiengorik ez zelako lortu (6., 9. eta 18. alegazioak).

Beraz gaia aztertuta, Hirigintza batzordeak proposatzen dio Udal Plenoari akordio hau hartzeko:

Lehena.- Aramaioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren funtsezko aldaketen espedientearen eta horren Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluaketaren hasierako onarpenari aurkeztutako alegazioen erantzunak onartzea:

*6. Arantza Ozaeta Elorza andreak aurkeztutako alegazioa:*

Irizpide teknikoak berdinak izanik, ikusita partzela bakarrean eraiki daitekeela, hutsik dagoen jatorrizko partzela bakarrari eraikitze aukera ematea lehenetsi da.

*Lehendakariak bozketa deitu du eta Udal Plenoak Udal Korporazioa osatzen duten 9 zinegotzietatik bilkuran 7 daudela, **alegazioa onartuaz erantzutea**, erabateko gehiengoz, aldeko bost -5- botorekin (EH BILDU), Lierni Altuna Ugarte eta Rafael Maria Bengoa Altuna zinegotzien abstentzioarekin (interes pertsonalagatik). ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.*

*9. Garbiñe Santacruz Sagarduy andreak eta Jose Ignacio Uriarte Aranburu jaunak aurkeztutako alegazioa:*

Irizpide teknikoak berdinak izanik, ikusita partzela bakarrean eraiki daitekeela, hutsik dagoen jatorrizko partzela bakarrari eraikitze aukera ematea lehenetsi da.

*Lehendakariak bozketa deitu du eta Udal Plenoak Udal Korporazioa osatzen duten 9 zinegotzietatik bilkuran 7 daudela, **alegazioa ez onartuaz erantzutea**, erabateko gehiengoz, aldeko bost -5- botorekin (EH BILDU), Lierni Altuna Ugarte eta Rafael Maria Bengoa Altuna zinegotzien abstentzioarekin (interes pertsonalagatik). ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.*

*18. Anton Axpe Elejalde jaunak aurkeztutako alegazioa:*

Irizpide teknikoak berdinak izanik, ikusita partzela bakarrean eraiki daitekeela, hutsik dagoen jatorrizko partzela bakarrari eraikitze aukera ematea lehenetsi da.

*Lehendakariak bozketa deitu du eta Udal Plenoak Udal Korporazioa osatzen duten 9 zinegotzietatik bilkuran 7 daudela, **alegazioa ez onartuaz erantzutea**, erabateko gehiengoz, aldeko bost -5- botorekin (EH BILDU), Lierni Altuna Ugarte eta Rafael Maria Bengoa Altuna zinegotzien abstentzioarekin (interes pertsonalagatik). ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.*

Bigarrena.- Alegazioak aurkeztu dituztenei jakinaraztea.

*Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.*

Lehendakaria

Idazkaria